

2022KO URTARRILAREN 27AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTA. Aurreko aktaren onespena. 2021-12-02.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

Obra-ziurtagiriak:

- NAFARROA ETORBIDEA ETA ORIAMENDI KALEEN ARTEKO IGOGAILUAREN OBREI BURUZKO LIKIDAZIOA. 2020PROB0003
- Aho batez onartu da “Nafarroa Etorbidea eta Oriamendi kaleen arteko igogailuaren obrei buruzko” likidazioa, 87.717,00 €koa (BEZ barne).
- ERRETIRATUEN ETXEKO OBRAK EGITEARI BURUZKO LEHENENGO ETA BIGARRENGO OBRAK ZIURTAGIRIAK. 2021OBMA0004
- Aho batez onartu da “Erretiratuen etxeko obrak egiteari buruzko” obrei buruzko 1. eta 2. ziurtagiriak, 38.065,55 €koa (BEZ barne) eta 113.306,55 €koa (BEZ barne), hurrenez hurren.

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu) galdetu du ea gaur bezalako gaitzerrenda ikusita, hots: bakarrik obra-ziurtagiriak, Gobernu Batzordea egitea beharrezkoa den, kontuan izanda bilerak suposatzen dituen gastua.

Alkate andreak erantzun du esanez obra ziurtagiriaren onespena atzerapenak ordainketa ere atzeratzea eta kontratistak beranduago kobratzea dakarrela

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aipatu

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen, akta hau idatzi eta sinatu dut.